

TOKIKOM

2018ko urtarrila | 177. zenbakia

ai kor!

tzakaria

Jesús García
Agur
doktorea



VENANCIO LÓPEZ GERNIKAREN EGIAK TOTI MTNEZ LEZEA LOURDES PUERTAS

FORMULARIK ONENA?

BERBALAGUN= 1+1

ZER DA BERBALAGUNA?

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak biltzeko programa da.

ZERTARAKO?

Euskara hobetzeko, praktikatzeko, euskaraz bizitzeko, ingurune euskalduna sortu, indartu eta zabaltzeko, euskaraz berba egiteko beldurra galtzen laguntzeko...

ZELAN?

Astean behin, ordubetez, paseoan, kafetegian, parkean ikastaroetan; asteburuetan irteerak, afariak...

...ETA GURASOLAGUNA?

Euskaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoak, zailtasunak dituztenekin elkartzeko programa da.
Astean ordubetez 5 edo 6 laguneko taldean elkartzen dira,

IZENA EMATEKO:

Izen-abizenak:

Jaiotze data:.....Helbidea:

Herria:.....Tel:.....

E-posta:.....

Euskara ikasten nabil:

Eguna.....Ordua:.....

Euskalduna naiz:

KONTAKTUA:

635.75.35.95 edo txorierri.berbalaguna@gmail.com

Laguntzaileak:



TXORIERRI
MUNICIPIO EUSKALTEKO


Antolatzailea:



TXORIERRI
MUNICIPIO EUSKALTEKO

Babesleak:



-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Jose Luis Bizkarguenaga
-  **12** Gurean... Venancio López, entrenatzailea
-  **14** Gaztea eta... Ager Blanco, padel-jokalaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Jesús García, erretiratu berria
-  **24** Gernikaren Egiak
-  **26** Toti Mtnez de Lezearekin solasean
-  **28** Lourdes Puertas, artista
-  **30** Taldeak... Con alfileres antzerki taldea
-  **32** Berbablagun
-  **35** Aikorrizketa... XXI. mendeak 18 urte
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Venancio López, Espainiako hautatzailea



24 Gernikaren Egiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarteen
Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan,
Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Iñaki Eguskizaga, Unai Ugalde, Idoia Andrés, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Joseba Apezetxea, Mari Carmen Noya, Gaizka Peñañel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Veolia frantziar multinazionalak, Alexandriako hondakinak kudeatzen ebazanez, 82 milioi dolarreko kalteordaina eskatu eutson 2012an Egiptoko gobernuari, hilabeteko gitxiengo soldata 41 eurotik 72 eurora igoteagatik, neurri hori berarentzat kaltegarria zalako.

Hori bera gerta dakikegu guri be, Europako Batzordea eta Amerikako Estatu Batuak isilpean negoziatzen egon diran ingelesez TTIP deritxon akordioa azkenean sinatzen bada. Akordio horren helburu nagusia ez da arantzelak jaitea, batzuk dinoen moduan, dagoaneko oso bajuak baitira, baizen eta beste arloetan enpresen etekinak murrizten dabean legeak deusestatu edo alde bietako lege mesegarrienak ezartea.

Ondorioak garrantzitsuak izan daitezke: lan mailan AEBek Lanaren Nazioarteko Erakundearen 70 hitzarmen sinatu ez dabezalako: negoziatzino kolektiboa, diskriminazioa, lan egiteko gitxiengo adina, asteko deskantsoa, askatasun sindikala eta abar. Hemen kokatutako amerikar enpresei hitzarmen horreek ezin geunskiez betearazo. Beste arloetan be,

Ez da onuragarria

AEBetan transgenikoak ahal dira erabili elikaigaietan, baita raktopamina, txarriak eta behiak loditzeko botika be, edo kloroz desinfektatzen diran oilaskoak saltzea onartuta dago. Naturari dagokionez, gasa lortzeko, AEBetan legezkoa dan frackingak (produktu toxikoz nahasturiko ura erabiliz lurraren hausturak) lurrikarak eta kutsadura ekarriko leuskiguz, adibidez.

Beste Estaduek sinatu dabean holako akordioakaitik jada badakigu enpresek kalteordainak eskatzen deutezala bete ez diranean, esaterako: Vattefallek Alemaniari 3.700 milioi euro zentral nuklear bi ixteagaitik; Phillip Morrisek 2.000 milioi dolar Australia eta Uruguairi tabakoren kontrako publizitateagaitik; Lone Pinek 250 milioi kanadar dolar Kanadari frackingaren luzamenduagaitik...

Rothschild eta Agnelli sendi aberatsen The Economist aldizkariak esan eban (2014-10-11) holako akordioaren helburua populazioaren kontura multinazionalak aberastea dala jenteari konbentzitzeko,



IÑAKI EGUSKIZAGA
(Abogatu erretiradua)

enpresek Estaduen kontra eroaten dabean auziak erabakitzeke: tabakoa, ingurugiroan edo katastrofe nuklearrak saihesteko mugak jartzeagaitik; diru mordoak kobratzen daben negozio abokatuen eskuetan epaimahaia iztea litzatekela (ez epaile publikoenean).

Hori bera da akordio horrek egiten dauena. Onuragarria? Herrientzako ez. Multinazionalerako, bai.

Zertan dabilta gure datu pertsonalekin?

Auto berria erosi dugu pasa den abenduan. Aseguru-etxearen bulegora hurbildu ginen giltzak eskuratu eta berehala, polizatik auto zaharra kendu eta berria jar zezaten agintzera. Ohiko tramite hori betetzeko paper pilo bat sinarazi zidaten, tartean nire autoaren, eta pertsonaren, datuak "hirugarren enpresekin" partekatzeke baimen-ematea, formulario luze baten laukitxo ostendu txiki bat markatu ezean.

Markatu egin nuen, noski, horrela jokatuta datu pertsonalen merkataritzaren gurrupiletik kanpo utziko nindutelakoan. Baina hara ezustea: "Robinson bezero" izendatu



UNAI UGALDE
(Irakaslea)

nindutela ikusi nuen aseguru-kudeatzailearen ordenagailuaren pantailan. Horretaz galdeturik, erantzun zidan datuak trukatzeko inongo zerrendatan agertu nahi ez dutenen zerrendan sartzeko eskaera zela, "Robinson zerrenda" deritzona (Crusoe jaunaren omenez, antza). Bai, ondo irakurri duzue: nik halako zerrenda "komertzialetan" ez agertzeko nahia adierazi, eta haiek ni zerrenda berezi batean sartu!

Hala ere gauden denok lasai, zeren gure Athletic maiteak lehenengo mailan dirauen bitartean ez baitugu beste ezertaz kezkatu beharrik.





Gym Berdea hirugarrenez ipiniko da martxan otsailean

Gym Berdea proiektu berritzailea da Estatuan, eta Larrabetzun 2016an egin zen lehen aldiz. Egitasmoak jardura fisikoa, osasuna eta naturaren ezagutza sustatzen ditu eta, aldi berean, aukera ematen du parte-hartzaileen arteko loturak ezartzeko. Hirugarren edizioari otsailaren 7an emango diote hasiera eta izena ematea Anguleri kultur etxean egin daiteke, edo 699 73 98 51 telefono zenbakira deituta. Hilean 20 euro ordaindu beharko dira eta astean ordu bi eta erdiko saioa egingo da. Aurkezpen bi egongo dira: bata, otsailaren 1ean, 19:30ean, Errebalen; eta bestea, otsailaren 5ean, 19:30ean, Angulerin.

Egitasmoak Green Gym britaniarra du eredutzat eta definizio ugari onartzen di-

tu. Izan ere, aire zabaleko gimnasioa da, osasuna sustatzeko gunea, lorezaintza ekologikoa ikasteko tailerra, tipologia ezberdinetako lagunei zuzendutako taldeko jardura, herria edertzea helburu duen proiektua eta gizarteratzeko tresna. Aurreko edizio bietan 30 pertsona inguruk hartu dute parte egitasmoan, eta gehienak 50 urtetik gorako emakumeak izan dira. Parte-hartzaileek eskolako sei eta 12 urte bitarteko umeekin partekatutuzte egitasmoan eskuratutako ezagutzak. Saioak ikasgelan hasten dira, egingo den lanari buruzko oinarritzko kontzeptu teorikoak azaltzen dira eta lanaren deskribapena bera egiten da. Gero, beroketa aerobikoa eta luzaketak egiten dira, eta lanari ekiten zaio herriko espazio batean.

II. Pintxo Lehiaketa, Sondikan

Sondikako Udalak Pintxo Lehiaketa antolatu du bigarren aldiz. Lehiaketa hiru egunetan egingo da: otsailaren 10ean eta pintxoaren osagarri nagusia okela izango da; martxoaren 10ean, arraina; apirilaren 14an, estilo librekoa. "Iaz, barikue-tan egin zen, baina aurtun zapatura eramán dugu, egun horretan ere pizteko giroa herrian", esan digu Beatriz Ortiz zinegotziak. Ildo honi jarraituz, Crazy jazzers musika taldea tabernaz taberna ibiliko da otsailaren 10ean. Pintxoek euro bat balioko dute eta bezeroek pintxorik onena zein den bozkatu ahal izango dute. Modalitate bakoitzeko irabazleak trofeoa jasoko du. Era berean, 100 euroko txartela zozketatuko da bezeroen artean. Hauek izango dira lehiaketaren parte-hartzaileak: Aragua jatetxea, Txinto, Txamo, Miren y Juantxo kafetegia, Geltoki Akasolo, Aterpe berria, Gaztañaga jatetxea, Cris Bar eta Sondikako Batzokia.

Loiun saihezbidea egiteko eskatu diote Aldundiari

Auto asko ibiltzen dira egunero Loiuko herrigunetik eta azken hila-beteotan hainbat istripu gertatu dira Zabaloetxeko bidegurutzean eta Landatxueta auzoan. Egoerari konponbidea emateko, Loiuko udalbatzak saihezbidea egiteko eskatu dio Bizkaiko Foru Aldundiari. Gainera, Zabaloetxeko bidegurutzean biribilgune bat egiteko ere eskatu dute, bertako semaforoek ez dutelako zirkulazioa modu argi batean arautzen.

Aldundiaren erantzunaren zain daudela, segurtasuna indartuko da Landatxueta eta udaltzainek trafiko zuzenduko dute eskola orduetan.

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Aresti
Harategia
Urdaitegia

Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06

Bizigune zabal gunea ezagutzeko jardunaldia

Bizigune zabal familiek kudeatutako gunea da. Larrabetzun dago, Goikolexea auzoan, eta orain dela 10 urte ipini zen martxan. Handik hona asko izan dira proiektuan parte hartu duten familiak. Arduradunek azaldu diguten moduan, Bizigune zabal gunea hiru urtetik sei urtera bitarteko umeei dago zuzenduta. Bertan, neskatoek eta mutiltoek jolasaz disfrutatzeko aukera dute, inguru seguru batean, zeinetan begirunea baita nagusi.

Egitasmoa txorierritarrei hurbiltzeko eta, horrela, datozen urteotan ere zabalik jarraitzeko, arduradunek atea irekitzeko eguna antolatuko dute otsailaren 2rako, arratsaldeko 5:30ean.



Kepa eta Areneren oroimenezko lasterketa



Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna otsailaren 28an ospatzen da, eta horren haritik Gure Señeak elkarteak otsailaren 11n egingo du Kepa eta Arene anai-arreben oroimenezko lasterketa, zazpigarren aldiz. "Kirola egiteko aukera emango dugu eta bide batez, gaixotasun arraroen inguruko jai-eguna antolatuko dugu", esan digute antolatzaileek. Goizeko 11etan, hitzaldi txiki bat egingo da Kepa eta Arene gogora ekartzeko.

Apur bat lehenago, 10:30ean, umeen lasterketa hasiko da. Kilometro bateko ibilbidea izango du, Derioko kaleetan zehar. Ordubete beranduago, nagusien txanda izango da. Antolatzaileek zortzi kilometroko ibilbide mistoa (bai lurrian, bai asfaltoan) prestatu dute. Irteera eta helmuga, umeen lasterketaren kasuan bezala, Derioko udaletxean izango da, eta korrikalariak Larrabarri, Rekalde parke, San Kristobal eliza, Mungiako trenbi-

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Arelitz doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urte Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 5 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astehenerdik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

de zahar eta Ganbetik pasatuko dira. Antolatzaileek ibilbide erdia egiteko aukera ere eman dute.

“Oso ibilbide polita da, erdia basoan egiten delako. Iaz, 800 lagunek hartu zuten parte lasterketan, eta aurten, eguraldi ona egiten badu, behintzat kopuru berbera espero dugu. Ez dago aitzakiarik, izen-ematea doakoa baita”. Lasterketan izena emateko epea irekita dago bai Derioko kiroldegian, bai www.gureseneak.org webgunearen bidez. Lasterketak bukatzen direnean, parte-hartzaileek taloa eta txorizoa jan ahal izango dituzte txosnan, 13:00etatik aurrera. Gainera, Kantarelux taldeak kontzertua eskainiko du bertan.

Gure Señeak irabazteko asmorik gabeko elkarteak 2010ean sortu zen, gaixotasun arraroak dituzten umeei eta haien familiei laguntza eta babesa emateko. Elkartetik adierazi duten moduan, gaur egun Derion badaude 11 familia elkarteari lotuta daudenak. Familia horien seme-alabek gaixotasun-espektrua zabal dute, hala nola Esklerosi tuberkuluduna, Angelman sindromea, Proud Levine Carpenter sindromea, fibrosi kistikoa, garun-paralisia eta autismoa. Elkarrekin erreferente bihurtu da herrian eta urtean zehar antolatzen dituzten kontzientizazio-ekintzen artean Kepa eta Arene anai-arreben oroimenezko lasterketa da azpimarratzekoa. Anai-arrebak gaixotasun arraro baten ondorioz hil ziren eta lasterketak umeak gogora ekartzea du helburu.

Txorierritarrak, Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketan

Orotara 100 emakume pilotarik eman dute izena txapelketan, eta horien artean txorierritarrak ere badaude. Joana Flaviano lezamarra lehenengo mailan arituko da, eta promozio mailan hauek lehiatuko dira: Ane Baraiazarra, Paula Iturbide, Mari Carmen Zubiaur, Izarne Elezkano, Ainara Berasaluze, Juncal Gonzalez eta Nerea Sagarna larra-betzuarrak; Ainara Navarro eta Alaitz Artetxe lezamarrek; eta Yaiza Carrascal zamudioztarra.

Eskuz binakako 2018ko Laboral Kutxa Emakume Master Cup Txapelketari otsailaren 4an emango diote hasiera Gasteizen. Bertan jo-

katuko dira lehenengo kanporaketak, Ogueta frontoian eta Mendizorrotza kiroldegian hain zuzen ere. Hurrengo kanporaketak Bizkaian izango dira, Larrabetzun, Markinan eta Santurtzin. Ondoren, Gipuzkoara egingo du salto txapelketak, “emakumezkoen eskupilotak bertan hartu duen indarra metatu, saritu eta erakusteko”, esan dute antolatzaileek. Finalerdiak Oñatin egingo dira; eta finalak, Eibarko Astelena pilotalekuan. Bai finalerdiak, bai finalak ETBk emango ditu zuzenean.

Txapelketan Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako, Nafarroako, Errioxako, Aragoiko, Asturias eta Kataluniako emakume pilotariek hartuko dute parte.



“Mikel Zarate” saria

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak haur literatura saria antolatu dute bederatzigarren aldiz. Helburua sei urtetik 12 urtera bitarteko haurrentzako irakurgai berriak sortzea da, eta idazleen lana bultzatzea. Era berean, Mikel Zarate lezamarra eta horrek euskal kulturaren alde egindako lan itzela gogora ekarri nahi dituzte. Lanak apirilaren 30era arte aurkeztu ahalko dira, Lezamako udaletxean. Horiek jatorrizkoak izan behar dira, beste inondik moldatu gabeak eta aurretik saririk jaso edo argitaratu ez direnak. Oinarriak www.lezama.eus webgunean edo liburutegian kontsulta daitezke (94 455 61 26 – liburutegia@lezama.org). Sari bakarra emango da, 3.000 eurokoa, eta Elkar argitaletxeak argitara emango du kontakizuna.



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

BC FUN Fitness Gym

Saio pertsonalizatuak, entrenatzaileen eskutik

BCF entrenamendu funtzionaleko gunea (HIIT makinak, kardiok funtzionala...)

Taldeko BCF saioak (zirkoa, zumba, fitbox...)

BCF kardiobaskularrak (high intensity eremua, indoor triatlona...)

BCF muskulazioa

628836753 - 944520815

3. nabea, 9. kutsaila, Ugaldaguren II
48170 ZAMUDIO

Enpresa ideiak garatzeko laguntzak

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak, EGAZ Txorierriren bidez eta Europako Gizarte Funtsaren finantzaketarekin, diru-laguntzak emango dituzte tokiko proiektu ekintzaileak garatzeko. Diru-laguntzak izaera ekintzailea duten eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren lagunei daude zuzenduta. Horiek aholkularitza espezializatua jasoko dute hiru hilabeteetan, enpresa-idea garatzeko edo enpresa martxan jartzeko.

Eskariak otsailaren 22ra arte aurkeztu daitezke EGAZ Txorierrin. Gehieenez 24 diru-laguntza emango dira enpresa ideiak garatzeko; eta 12 diru-laguntza, negozioak martxan jartzeko. Gutxienez eskaera aurkeztu duten emakumeen ekintzaileen % 40k jasoko dute diru-laguntza.

Negozio ideiak garatzeko, 1.000 euroko laguntza emango da pertsonako; eta 1.500 euroko laguntza lagunekiko, proiektu berriak abian ipintzeko. Laguntzak % 15 handitu ahal izango dira sustatzaileak 18 urtetik 30 urtera bitartekoak badira, edo sustatzailea emakumezkoa bada.



Beste Bira Txorierrir atletismo taldea, Derion ere bai

Taldea Loiukoa da, baina entrenamenduak Derion ere egiten hasi dira. Beraz, nahi duten neska-mutilek hango kiroldegira jo dezakete barikuetan, 17:30etatik 19:00etara bitartean. Orain arte taldea bakarrik Larrondoko pilotalekuan aritu da, martitzenetan eta egunetan, ordutegi berean.

Beste Bira Txorierrir atletismo taldea iaz sortu zuten. Atletismoa bultzatzea eta bailarako gazteei kirol horretan murgiltzeko aukera ematea ditu helburu. Guztira, 40 atleta dabilta taldean, bost urtetik

beteranoen kategoriara bitartean. Azken bolada honetan, emaitza onak lortu dituzte, eta horrek adierazten du taldean lan txukuna egiten dabiltzala: nagusiek zortzigarren postua lortu zuten Kross Bizkaiko Txapelketan; eta abenduan 31n Bizkaian egindako San Silvestre lasterketan, Loiuko atletak lehenengo postuetan ibili ziren.

Informazio gehiago:

609417996

ibsolaberrieta@gmail.com

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

yedra floristas
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

IRATXO
gazotegia
berta pertsonalizatuak
trufak
leioak
pastelak
postak
Mikel Zarate, 2 - 3. larrea • Sondika, 48150 • 94 453 89 79

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

ARTIZAR
MARKOA IPINTZEKO TAILERRA
MARKOAK • MOLDURAK • GRABATUAK
LIKIDAZIOA
ERRETIROA HARTZEAGATIK
MARTITZEN ETA EGUNETAN, ZABALIK
Justo Ajuria, 3-644 24 36 30-48150 Sondika

Ilea emateko ekintza solidarioa

Mechones solidarios irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta ile naturalez egindako ile-ordeak behar duenaren eskura ipintzea du helburu. Horiek kimiote-rapiaren ondorioz ilea galdu duten lagunak izan daitezke, edo gaixotasun arraroren bat duten lagunak. Txorierrri institutu-ko ikasle batzuek elkartearen lana ezagutzen dute, eta sentikorrak dira horrekiko zein lehen aipatutako lagunek dituzten arazoei. Horregatik ilea emateko ekintza solidarioa antolatzen proposamena

egin zieten Txorierrriko ile-apaintzaileei. Ekintza martxoaren 18an egingo da eta datozen egunotan igarriko da haren gaineko informazio zehatza. Hala ere, eta aurreratu diguten moduan, ekintza Derion egingo da, jendaurrean, eta egun horretarako ere beste ekitaldi batzuk antolatuko dira. Ilea nahi duenak eman dezake, baldintza bakarra da, mototsa egin ostean, gutxienez 20 zentimetroko luzera izatea. Parte-hartzaileek bost euro ordaindu beharko dute.

Aurrekontu errealistak, Sondikan

Horrela adierazi du hango alkateak, Xabier Zubiaurrek. Azaldu duen moduan, aurrekontuak sondikoztar guztien artean zabalduko parte-hartze prozesu baten emaitza dira eta, ondorioz, herritarren beharriak eta eskaerak kontuan hartuta egin dira. Orotara, 5,28 milio euroko aurrekontua onartu da 2018rako.

Besteak beste, argiztapenari eta bide-segurtasunari lotutako hobekuntzak egingo dituzte herrigunetik urrunago dauden auzoetan. Izartza kalea, eliza ondoan, urbanizatuko da, eta norabide bakarrek bihurtuko dira Gori kalea (Txorierrri eta Mitxine arteko tartea) eta Uribe bidea. Era berean, Goiri-erdikoa kaleko argiztapena hobetuko da, eta oinezko pasabide goratu bat ipiniko da Gorondabeko kalean. Lehendakari Agirre kalean, lurpeko bidearen ondoan dagoen oinezkoen pasabidea atonduko da, irisgarritasuna hobetzeko. Hobekuntzak kiroldegietan ere izango dira, eta ezintasuna duten lagunentzako apartakelu-plazak atonduko dira tren-geltokian, Txikigunean eta udaletxean.

Bestetik, oinarritzko zerbitzuak, hala nola kultura, hondakinen bilketa eta lorezaintza, mantenduko dira, eta 8.000 euro zuzenduko dira gizarte-larrialdietara. Berdintasun Plana garatuko da, eta Egaz Txorierriri diru-partida bat emango diote, herrian lana sustatzeko. Horren haritik, adierazi dute Sondikako langabezia tasa % 8,3koa dela.



GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

Astintze, 6 Inbisa Ind., C', 16-17, DERIO
688 847 633



Muji
TAILEARRAK

% 10eko deskontua * presioak eta prezio argiztatutakoak

ASADOR FUENTENEberria
"lur eta itsaso ko hasierria"



Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZAUZA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Mozorroen jaian murgilduta

Herritar eta txorieritar guztiei zuzendutako Inauteriak prestatu dituzte Sondikako lagunek. Hala ere, ez dira bakarrik izango eta gainontzeko herrietan ere mozorroa janzteko aukera edukiko dugu. Alea itxi orduko, hauek eskuratu ditugu.



a: Jon Goikouria Larrabeiti

Sondika

Otsailak 10, zapatua

–17:00-22:00 Inauterietako jolasak, Gaztetxean.

Otsailak 16, barikua

–16:00 Txupinazioa
–18:00 Umeen kalejira, eskolatik herrira. Sardina eta buruhandiekin.
–18:30 Xaibor diskofesta, umeentzat.
–19:30 Txanpi-pote, txosnetan.
–23:30 Kontzertua: Riot Propaganda.
–02:00 Erromeria: Trikizio.
–04:30: Dj-a.

Otsailak 17, zapatua

–11:00 Umeen parkea.
–12:00 Tostada lehiaketa.
–12:00 Kalejira, txistulari eta fanfarrearekin.

–16:00 Kafea nagusientzat, Nagusien etxean.

–17:30 Umeentzako animazioa.
–18:00 Umeen mozorro desfilea.
–19:00 Fanfarrea.
–19:00 Umeen mozorro, tostada eta erakusleio txapelketen sariak banatzea.
–19:30 Txokolatada.
–20:30 Kalejira, Deabru Beltzak taldearekin.
–21:30 Sardinaren hileta.
–23:00 Kontzertuak: talde lokalak.
–00:00 Erromeria: Urrats.
–01:30 Mozorro lehiaketaren sariak banatzea.
–02:00 Erromeria: Urrats.

Zamudio

Otsailak 9, barikua

–17:00 Lagunandre elkartearen bingo berezia, Kultura Etxean.
–18:00 Maskara tailerra, Gazte Estazioan.

Otsailak 10, zapatua

–11:30 Mozorro tailerra, liburutegian.
–18:00 Tostada lehiaketa, Adintsuen etxean.
–18:30-21:30 Erromeria Dj Marioarekin.
–19:00 Gynkana pirata eta disko-pirafest, Gazte estazioan.

Otsailak 11, domeka

–12:00 Umeentzako erromeria Dj Kaktus ekin eta mozorro lehiaketa, Ludotekan.

Loiu

Otsailak 9, barikua

–17:30 Jaia, Zabaloetxeko ludotekan. Musika, animazioa, mozorroak...

Lezama

Otsailak 10, zapatua (frontoian)

–19:00-20:30 Artista-mozorroen lehiaketa.
–20:30-21:30 Areto dantzen emanaldia.
–21:30 Afaria. Nagusiak, 15 euro; 12 urtera artekoak, 10 euro.
–22:30-23:30 Sariak banatzea eta animazioa, Leire Olanaren eskutik.
–23:30-02:00 Disko arima eroa diskofesta, Urtza Zuazok eta Dj batek girotua.

Derio

Otsailak 10, zapatua (Sollube kalean)

–17:30 Mozorro lehiaketan izena ematea, San Isidro elizaren arkupean.
–18:00 Jaitsiera elizatik, Los zombies taldeak girotuta (Euria badago, frontoian).
–Unai Goikolea dj-aren emanaldia.
–19:45 Desfilea eta sariak ematea.

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

–Especialitate guztiak
zentro bakar batean
–Aurrekontua doan

–Especialitatea:
umeak

Uribi 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6



Jose Luis Bizkarguenaga Monasterio | Hegazkinen zelataria

Aire eta itsasoko nabigazioa maite izan du betidanik Jose Luisek. Ia dena daki hegazkinei buruz. Suhiltzaile ohiak, gaztea zelarik, ECO ALFA II baimena eskuratu eta Yaesu FRG 9600 modeloko eskanerra erosi zuen. Horrek, irrati komertzialez gain, bestelako uhinak jasotzen ditu, aireportukoak besteak beste. Goizero, 06:00etan jaiki eta 09:00ak arte pilotu eta aireportuaren arteko komunikazioak entzutea du gustuko 79 urteko derioztarrak. Gainera, lur hartu baino lehen etxeko leihotik ikusten ditu burdinazko txoriak: edonork gozatu ezin dezakeen zaletasun bitxia.

Jose Luis emisora hartuta ederto, leihora hurbiltzen da ondo ikusteko. Izan ere norberak bere era deko lurretik zein airetik hegaz egiteko!

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti / www.jongoikouria.com

Itallen Bertso Eskola

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JAKARIA
Urkiola, 6 DERIO 944541655

en✓iser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

"Areto-futbolak jarraitu behar du lanean, bere lekua hartzeko"

t: Gaizka Eguzkitza / a: C. Rubio RFEF

Futsal Planet kirol aldizkari ospetsuak bosgarren aldiz izendatu zaitu munduko hautatzailerik onena. Zorionak!

Sariak jasotzea harro egoteko modukoa da, baina horiek batez ere nire inguruan dauden guztion lana hartzen dute aintzat: jokalaria, teknikaria... Azken batean, areto-futbol espainiar osoari dagokio saria, lortzen ditugun helburuak eta erakusten dugun maila altua guztion lana delako.

Hitz egin dezagun Derion Gabonetan antolatutako campusaren inguruan. Zelan esperientzia?

Oso polita. Pozgarri taldeko proposamena oso interesgarria izan zen eta gazte pilo batek eman zuen izena. Gustura ibili ginen Derioko Campusean, bai horixe!

Zergatik hartu zenuen parte campusean? Zelan jarri ziren harremanetan zurekin?

Pozgarri taldeak nire laguntzaile Inigoren bidez, deitu zidan. Ni beti saiatzen naiz horrelako ekimenetan parte hartzen. Gustatzen zaizkit, batez ere hezkuntzarekin eta gazteekin zerikusia dutenean. Nire ustez, horiek oinarritzat hartu behar dira, edozein kirol hazteko. Gainera, bizkaitarra naiz eta etxetik deitzen badidate, laguntza ematen saiatzen naiz, zelan ez!

Ez dut imajinatzen Julen Lopetegi Espainiako futbol hautatzailea non eta Derion, umeen campus batean...

Nire estatusak ez nau baldintzatzen. Ni pertsona arrunta naiz eta Espainiako areto-futbol hautatzailea izateak ez nau aldatu. Betiko moduan, abegitsua naiz.

VENANCIO LÓPEZ | Espainiako areto-futbol hautatzailea

Bere izena ez da oso ezaguna, baina Venancio erreferente bat da munduan, areto-futbolari dagokionez. Bilbotarra Espainiako selekzioaren hautatzailea da, eta Gabonetan Pozgarri taldeak antolatutako areto-futbol Campusean hartu zuen parte Derion. Luxuzko laguntza.



Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaharrak Berrak
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txarriñen etorbidea, 8 - Lorja | Antsaga enakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUNKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 88 Fax 94 454 14 18 Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

Nire Autoocasion **MA**

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mugilak: 686 97 06 41 - 849 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com



*“Espainiako areto-futbol
hautatzailea izateak
ez nau aldatu.
Betiko moduan,
abegitsua naiz”*

**Zer gertatzen zaio areto-futbolari?
Nahiz eta jokalarik eta talde asko egon,
ez dauka beste kirol batzuek duten
arrakasta, batez ere komunikabideen...**

Gizarte mailan, gehien egiten den kirola bat da. Egia da, komunikabideei dagokienez, futbola da nagusi, baina guk ez dugu bere kontra jokatu nahi. Aretu-futbolak jarraitu behar du lanean, bere lekua hartzeko. Ez da erraza, baina borrokatu behar dugu gure lana besteekin aintzat hartzeko.

**Laster Esloveniara joango zarete,
Europako Txapelketa jokatzen. Zeintzuk dira helburuak?**

Betikoa, txapela etxera ekartzea. Jakin badakigu erraza ez dela izango, baina helburua beti da irabaztea. Tamalez, aurtengo oso prestakuntza gutxi izan dugu. Irailetik, bakarrik hiru eguneko kontzentrazio bi egin ditugu, eta debora gutxi izan dugu txapelketa behar bezala prestatzeko. Gogor egingo dugu lan datozen egunotan, prestaketa ahalik eta onena izateko.

**Espainia Europako txapelduna da,
baita txapelketa hau irabazteko faborito nagusietako bat ere. Presio berezirik sentitzen duzue horregatik?**

*“Zenbat eta presio
handiagoa egon,
orduan eta
hobeto
jokatzen dugu”*

Ez, guztiz kontrakoa: zenbat eta presio handiagoa egon, orduan eta hobeto jokatzen dugu.

Arerioak betikoak izango dira: Portugal, Italia, Errusia eta Ukraina?

Bai. Eta Kazajistan. Bere atezainak ere hartzen du parte jokoan, bosgarren jokalari...

laria izango balitz moduan, eta talde polita osatu dute.

Aretu-futbola izugarri aldatu da azken urteotan eta taktikoki gero eta maila handiago dago European, ezta?

Bai, dudarik ez. Nire ustez, hori batez ere Espainian landu da, eta azken 10 urteotan, entrenatzaile espainiarrak atzerrira joan izan dira eta han hainbat herritako garapena bultzatzen lagundu dute.

Hamaika urte daramatzazu hautatzaile. Zer egingo duzu txapelketa bukatzen denean? Aldaketaren bat egiteko asmoa daukazu?

Ez, pozik nago hemen. Dena dela, buruan txapelketa baino ez daukat, ez dut etorkizunari buruz pentsatzen.

Erreferentia, mundu mailan

José Venancio López Hierro (Bilbo, 1964) erreferente bat da mundu mailan, areto-futbolari dagokionez. Gaur egun Espainiako selekzioaren hautatzailea da, baina horretaz aparte, hitzaldiak eta ikasgai magistralak eskaintzen ditu mundu osoan. Beti agertzen da areto-futbola zabaltzeko prest. Ezagutzen dutenek oso langilea dela diote, ia obsesiboa. Inoiz ez omen da lanarekin nekatzen.

Gaztetan jokalaria izan zen Leioa taldean, baina 1988an entrenatzaile egin zen. Leioan hasi eta gero lau taldetan ibili da: Bilbo, Castro, Caja Segovia eta Lobelle Santiago. Bitartean,

Guatemalako selekzioaren hautatzailea ere izan zen 2003an. Espainiako selekzioan ibilbide bi izan ditu: bata, 1996tik 1998ra bitartean, eta gaur egungoa, 2007an hasi zena.

Bere garaipen-zerrenda bikaina da: klub mailan, hiru aldiz irabazi ditu Espainiako Kopa eta Espainiako Superkopa; eta behin, Liga, Europako Kopa, Errekopa eta Kontinentearteko Kopa. Era berean, Espainiako selekzioarekin batera, Venanciok lau aldiz irabazi du Europako Txapelketa. Falta zaion garaipen bakarra Munduko Txapelketa da, bi aldiz txapeldunorde gelditu delako.



Etorkizun handia, jokalekuan

t: Itxaso Marina Ondarrea / a: I.M. eta A.B.

AGER BLANCO | padel-jokalaria

Txapelketa azaroan izan zen eta bertan Jon Iriondo gasteiztararekin batera aritu zen. "Pozik nago, urteko txapelketa-rik inportanteena delako. Partida hasi baino lehen ez genuen uste txapelketa irabaziko genuenik, baina ondo ibili ginen eta lortu genuen". Agerrek iaz ere irabazi zuen txapelketa, kadete mailan.

Padel jokatzen sei urte zituela hasi zen. "Futbolearen aritzen ginen eta denbora libre asko genuenez, lagun batekin animatu ninduen padelean saiatzera. Hasi ginen eta izugarri gustatu zitzaidan". Kirolak berehala harrapatu zuen. "Lagun pilo bat egiten dituzu eta partidak oso interesgarriak dira. Tennis partiden antzekoak dira, eta ordu eta erdi inguru irauten dute. Hiru set egiten dira, eta partida irabazteko, horietako bi irabazi behar dira. Niri jokoa bera gustatzen zait".

Entrenamenduak Esmaspadel klubean egiten ditu, Zamudion. "Astelehenetan izan ezik, asteko gainontzeko egun guztietan aritzen naiz padelean, edo egiten dut kirola. Martitzenetan eguaztenetan eta barikuetan ordubeteko entrenamen-

Hamazazpi urteko lezamarra Euskadiko txapelduna da junior kategorian. Umetan hasi zen padelean, eta dagoneko 30 kopa irabazi dituela, jokalaria profesionala izatea amesten du.

dua egiten dut, eta eguenetan gimnasio-ra joaten naiz. Bertan ordu bi ematen ditu. Garrantzitsua da gimnasioa saioa, saioan egoteko eta nekatuta ez ibiltzeko. Osagarri bat da. Bestalde, zapatueta eta domeketan partida izaten dut". Ikasketez gainera, egunero entrenatu behar izatea gogorra iruditu daiteke, baina Agerren kasuan ez da horrela, "gustatzen zaidalako".

Hamaika urte daramatza padelean jokatzen, eta adituek diote etorkizun handiko jokalaria dela. Denboraz ikusiko da hori, hala ere guk esan dezakegu, etxean 30 kopa eduki arren, oso mutil apala dela. "Ona naiz, baina jarraitu behar da entrenatzen; osterantzean ez da ezer egiten. Padela oso kirol neketsua da, fisikoki ez ezik mentalki ere bai, eta horregatik da

oso inportantea kontzentrazioa. Arreta landu behar da, kontzentratu ezik partida galdu dezakezulako. Beraz, ondo egon behar da fisikoki zein mentalki". Aipaturako trofeoak Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan lortu ditu, zeinetan txapelduna edo txapeldunordea izan baita. Era berean, iaz final-laurdenetara ailegatu zen Espainiako txapelketan. "Torneo asko jokatzen ditut. Zailagoak Estatu mailakoak dira, maila handiagoa delako".

Gorputz Hezkuntza

Gaztearen esanetan, bikotekide ona izatea ere bada garrantzitsua. Iaz arte Gasteizko Jonekin ibili da partidetan, baina aurten Madrilgo mutil batekin egingo du, adina dela-eta, Jon senior kategoriarako pasatu delako. "Madrilgo laguna orain de-

“Padela oso kirol neketsua da, fisikoki zein mentalki. Horregatik da oso inportantea kontzentrazioa”

“Zaila izango da profesionaletan jokatzea. Gainera, dirua behar da leku batetik bestera ibiltzeko”

la urte bi ezagutu nuen, Badajozen. Elkarrekin jokatu genuen taldekako torneo batean eta ondo moldatu ginen. Bakoi-tzak bere herrian entrenatzen du eta, gero, partidetarako elkartzen gara”.

Etorkizunari begira, Agerri gustatuko litzaioke profesionala izatea. Eta Gorputz Hezkuntza ikastea. “Zaila izango da profesionaletan jokatzeko. Gainera, dirua behar da torneoetara joan eta leku batetik bestera ibiltzeko. Babesleak-eta lortu behar dira. Urtean behin torneo bat egiten da Bilbon edo Gasteizen, eta koadrora ailegatzea ere ondo legoke”. Profesionala izateak lezamarraz entrenamendu gogorra goak egin beharko dituela esan nahi du, eta gogoia eta arreta bakarrik kirolean ipi-



ni beharko dituela. Ager ez da beldur, eta prest dago etor litezkeen zailtasunei aurre egiteko. “Gainera, egin nahi ditudan ikasketak osagarriak izan litezke”.

Padela sasoi onean dago, Agerren iritziz. “Orain dela gutxi World Padel Tour torneoak egin zen Bilbon eta sarrera guztiak saldu ziren. Izan ere, zale asko daude. Parte-hartzaileen aldetik ere badago jendea jokatzeko. Sasoiaren dagoen kirola da, arlo guztietan”. Lezamarra ere ederto dabil eta, ziur asko, aurtun garaipen gehiago ekarriko ditu Txorierrira.



Urtzagale Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierra.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierra.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Mankomunitateak aurrekontuetan arr emango dio euskararen eguneroko er

Hainbat programa sustatuko dira, hala nola "Euskaraldia"(Euskarak 365 egun), Berbalagun eta Mihiluze, eta ekintzak egingo dira kirol taldeekin haien eguneroko hizkuntza euskara izan dadin. Horrela, orain arte izan duen formaltasun-iruditik urrundu nahi da euskara.



Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak % 4,56 areagotuko du bere aurrekontua 2018an, 8.009.076,63 eurora arte. Gorakada horrekin, apustu argia egiten du prezio publikoei eusteko eta zenbait arlo sendotzeko, hala nola euskararen arloa. Zehazki, 618.729 euro bideratuko dira arlo horretara, euskararen eguneroko erabilera indartzeko asmoz. Horrez gain, aurrekontuko partidak beste zenbait gaitara ere bideratu dira, esaterako, hondakinen kudeaketa eraginkorragoa egitera eta bereizketa-emaizta hobeak lortzera. Bere horretan utziko da hondakin gutxiago sortzeko sensibilizazio-kanpainak egiteko partida, 10.000 eurokoa, "0 hondakin" helburua lortze aldera. Ildo horretan, 5. edukiontzia ezarpenarekin aurrera jarraitzeko (edukiontzi marroia, hondakin organikoentzat), besteak beste 13.449,15 euroko inbertsioa aurreikusi da edukiontziok erosteko.

Gainera, arlo horretan bertan, Mankomunitateak hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuaren egungo egoeraren diagnostikoa egingo du, zenbait tresna eskuratzeko, hobetu beharreko esparruak identifi-

*Partidak beste zenbait
gaitara ere bideratu
dira, esaterako,
hondakinen kudeaketa
eraginkorragoa egitera*

katzeko, bereizketa-emaizta hobeak lortzeko eta bereizketa bera eraginkorragoa egiteko helburuarekin. Hain zuzen, urtearen bigarren sei hilekorako hiri-hondakin solidoak biltzeko eta kaleak garbitzeko zerbitzuen kontratuak lizitatzea aurreikusten da. Hori dela eta, 36.300 euroko gastua aurreikusi da aldeztu aurretik azterlan teknikoak egiteko (baldintza-agiriak idazteko laguntza tekniko).

2018ko aurrekontuen funtsezko helburuetako bat da euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, arreta berezia emanez Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak sustatuko "Euskarak 365 egun" proposamenari. Hain zuzen, Mankomunitateak 618.729

euroko aurrekontua dauka euskara sustatzeko (Txorierriko biztanle bakoitzeko 29,79 euro). Aurrekontu horretan sartzen dira, euskaltegira bideratutako partidaz gain (369.592 euro), beste zenbait programa garatzea ahalbidetuko duten beste partida batzuk, hala nola Berbalagun (jendea taldetan biltzen da, euskaraz hitz egiteko) eta FOE (futbol eta saskibaloiko taldeei zuzendutako programa, entrenamendu eta partidatan euskaraz hitz egin dezaten). Horrez gain, beste zenbait ekintza ere sustatuko dira: Mihiluze (10 eta 11 urteko 200 gaztetxo baino gehiagok euskaraz jolasten eta ikasten dute beren aisialdian, urtean lauzpabost hilabetez), bertsolaritza-eskolak Txorierriko ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat, euskara ikasteko bekak eta doako itzulpen-zerbitzua merkataritza eta ostalarientzat, besteak beste.

Askotan euskara betebeharrarekin eta formalitatearekin lotzen da, eta Txorierriko Mankomunitatearen helburua da aisialdiarekin lotzea eta, bide batez, euskararen «erabilerarekiko harrera positiboa» lortzea eta hizkuntza "formal eta, are



eta berezia abilerari



Kasketak, bullyinga eta hezkuntza estiloak eta atxikimendua

Otsailean eta martxoan, Txorierriko familiantzako hitzaldietan, besteak beste, hauek aztertuko dira: bullyinga eta ciberbullyinga, adimen emozionalaren transmisioa, hezkuntza estiloak eta atxikimendua, pantailak erabiltzeko adinik egokienak eta nola hitz egin seme-alabek entzun dezaten. Saiok ordu eta erdikoak izango dira eta egun ezberdinetan eskainiko dira. Gai ezberdinak landuko dira Sondika, Derio, Zamudio, Larrabetzu eta Lezaman antolatuko diren saioetan. Izena emateko Mankomunitatera etor zaitezke (Txorierri Etorbidea 9, behea), 94 454 03 50 telefonora (Agurtzane) deitu dezakezue edo ekt@txorierri.eu e-mailera idatzi. Hitzaldiei buruzko informazioa nahi izanez gero, jo web-orri honetara: www.txorierri.eus.

biztanle kopuruaren arabera eta, gainera, 25a, udalerri horietako bakoitzean kokatzen den enpresa-kopuruaren arabera.

2018an egingo diren ekintzei dagokienez, hauekin jarraitzea aurreikusten da: herritarren beharrei erantzuten, lan-orientazioa eta -bitartekaritzaz zerbitzua eskaintzen, enpresak sortzen laguntzen, baita pertsonen enplegarritasuna hobetzen laguntzen duten ikastaroak antolatzen. Sustapen ekonomikoaren arloko ekintzak ere badaude, bereziki hauek nabarmentzen dira: hobekuntzak industrialdeak kudeatzeko orduan, eta nazioartekotze eta enpresa lankidetzazko programetan oinarritutako enpresen lehiakortasuna hobetzea, eskualdeko enpresen artean negozio aukerak dinamizatzeko.

Udal euskaltegia

Aurrekontua 652.191,21 eurokoa da; aurreko ekitaldian baino % 4,56 gehiago. Dauden ikasle kopuruaren arabera, udal bakoitzak ekarpenak egiten ditu. Ikasurte honetan 216 ikasle daude matrikulatuta eta udalek 369.592 euroko ekarpena egingo dute (kopuru osoaren % 56,67). Aurrekontuaren gainerakoa HABEren diru-laguntzetatik eta ikasleek ordaindutako matrikulen eta eskolen zenbatekoetatik dator.

gehiago, literario" izatetik "lagunarteko eta gertuko" izatera pasatzea.

Berdintasunaren aldeko lanak ere leku garrantzitsua dauka 2018ko aurrekontuetan. Aurten arlo horretarako aurrekontua ohikoa izango da (15.000 euro), eta erronka nagusia da eginiko planen plangintza eta segimendua egitea.

Mankomunitateak programa ezberdinak jorratzen jarraituko du, prestakuntza bultzatzeko, enplegarritasuna sustatzeko, talentua sorrarazteko eta gazteen arteko ekintzailetza proiektuak bideratzeko. Horrela garatuko dira, esaterako, foru jardueraren lehentasunezko ardatz diren gazteen enplegua bultzatzeko programa berriak, EGAZ Txorierri zerbitzuaren bidez.

Horrez gain, 100.000 euroko gorakada egon da argiteria publikoaren kudeaketa integralerako partidan (250.000 euro), 2017ko gastua kontuan hartuta. 2018rako, Mankomunitateak lanean jarraitu nahi du zerbitzu honen "kudeaketa integral iraunkor eta eraginkorra" lortzeko eta "instalazioak seguruak direla eta egoera onean daudela" bermatzeko,

gerta daitezkeen "ezbeharrei, bandalismoari eta fenomeno atmosferikoei" aurre eginez eta "argi-puntu berriak jartzeko beharra" alde batera utzi gabe.

Gizarte-zerbitzuei dagokien kapituluari, psikologoaren lanaldia bikoiztea aurreikusten da, eta Mankomunitatea gizarte-hezitzaileen lanaldia ere areagotzeko aukera ebaluatzen ari da. Horrez gain, langileen gastuak areagotzea aurreikusten da, horien ordainsariak % 1,5 areagotuko baitira, 2018 ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezartzen duenari jarraikiz. Gainera, 2018an langile lan-kontratudunak kontratatzeke kreditua esleitu da, gizarte-langileei laguntzeko lauhileko batean.

Behargintza Txorierri

Mankomunitateak, enplegua "Txorierriko herritarrentzat lehentasunezkoa" dela uste du eta hori dela eta, 254.500 eurora arte gehitu du bere ekarpena, eta % 36,91 finantzatzen du, guztira, 689.534,39 eurokoa den aurrekonturako. Behargintzako ekarpenaren % 75 udalek finantzatuko dute, udalerri bakoitzeko

"Berriro jaioko banintz, berriz izango nintzateke medikua"

JESÚS GARCÍA GARRASTAZU | erretiratu berria

Algortarra 28 urtean ibili da Sondikako osasun zentroan, eta 25 urte eman ditu Txorierriko unitatearen buru moduan. Erretiroa abenduaren 12an hartu zuen, 65 urte bete zituen egun berean. Itzala utzi du pazienteengan zein lankideengan.

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Erretiroa hartzeko gogoa eduki duzu?

Alde batetik, bai; baina beste aldetik... Izan ere, oso egun hunkigarriak izan dira pazienteei erretiroa hartuko nuela jakinarazi nienetik. Batzuk bakarrik niri agur esatera etorri dira kontsultara, eta komentatu didate zer izan naizen eurentzat eta euren senideentzat. Horrek guztiak hausnarketa egitera eraman nau, familiako medikuak paziententzat eta euren familientzat duen garrantziari buruz. Kasu batzuetan familiaren beste kide bat bihurtzen zara.

Orain gutxira arte zure kontsulta izan den gelan gaude. Zer sentitzen duzu?

Uf... Egia esateko, oso zirrara handia sentitu dut etxetik hona etortzeko bi-

daian, urteetan nire lantokia izan den lekura etorriko nintzelako, lankide ohiak ikusiko nituelako... Dena dela, lehengo garaitik urruntzen saiatu naiz: orain arte medikua izan naiz eta orain bizitza beste ikuspegi batetik ikusi behar dut. Onartu behar dut egoera berria.

Zergatik egin zinen mediku?

Etxean medikurik egon ez arren, lanbide honek betidanik erakarri nau. Nire garaian, unibertsitatea Bilbon zegoen eta hango Medikuntza Fakultatera sartzeko aukera eduki nuen. Laugarren promoziokoa naiz; ikasketak 1978. urtean amaitu nituen.

Eta zergatik erabaki zenuen familiako medikua izango zinela?

Kardiologoaren bazoaz, esate baterako, hark bihotza aztertuko dizu baina, nire ustez, pertsonak osotasune-

an tratatu behar dira. Gainera, medikuok euren inguru sozio-sanitarioa ere hartu behar dugu kontuan: zelakoak diren, seniderik duten, lagunik... Pentsatzen dut familiako medikua hur izatea dela gauzarik inportanteenetakoa. Medikua izanaren joan eta berak aztertuko du zer egin kasu bakoitzean.


Zein izan da zure ibilbidea Sondikara etorri baino lehen?

Hiru urte eman nituen Diman; eta gero zortzi urte Mungiako Larrialdietako zerbitzuan. Bitartean, familiako medikuntzan espezializatu nintzen eta Sondikara etortzea eskatu nuen.

Zergatik Sondikara?

Diman izan nintzenean, hango medikuaren etxean bizi nintzen. Herritarrak kontsultatik kanpo ere etortzen zitzaizkidan euren osasun-arazoekin, ni menditik paseoa nentzela zein kalean ikusten baninduten, adibidez. Eta atenditu egin behar nituen, noski. Edo galdetzen zidaten ea nahi nuen hona edo hara eramatea... Bizitza pertsonala lanetik bereizi nahi nuen eta, horrela, erabaki nuen ez nituela eduki nahi etxebizitza eta lantokia herri berean. Horregatik eskatu nuen Sondikara etortzea. Algortan bizi naiz eta ez dago urrun. Gainera, oso herri lasaia da eta euskalduna.





Presarik ez

Jesús mediku hurbila da, izan ere, beti egin du ahalegin berezia pazienteengandik gertu egoteko. "Osasunari lotutako gaiei dagokienez, saiatu naiz nire pazienteentzat erreferentea izaten, eta niregana jo zezaten, zalantzak-eta argitzera. Uste dut hori nolabait lortu dudala".

Mediku hurbila eta apala izan da, "bizitzaren beste arloetan ere apala naizelako", eta horrela azaltzen da "kontsultaren beste aldean" egoitea dagokionean. "Bai, familiako medikuak ere familiako medikuarenera joaten gara. Are gehiago, neure familiako medikua izango banintz, oso mediku txarra izango nintzateke (kar, kar). Nire familiako medikua fakultateko ikaskidea izan zen, eta ondo. Zorionez, oso gutxitan joaten naiz beraren kontsultara".

Lankideek agur-afari oso hunkigarria prestatu zioten eta oraindik zirrara eragiten dio hori gogora ekartzeak. "Bideo bat eta guzti egin zidaten, eta han nire pazienteak azaltzen ziren, beraientzat zer izan naizen azalduz. Mobilean dut eta noizean behin ikusten dut". Mediku eta pertsona hurbila izatearen fruitua, zalantza barik.

Aitortu digu, Gabonak tartean izan direnez, ez duela denbora askorik eduki bere egoera berriaz jabetzeko, eta orain egiten dabilela. "Eus-kara ikastaroren bat egingo dut, eta kirola asko gustatzen zaidanez, aprobetxatuko dut mendira joateko eta bizikletan ibiltzeko. Dena dela, ez dut presarik, ezertarako. Nahiko lasai nago, nire lekua berriro topatzen. Eta hartzen".

Eta zu, hemen, mediku euskaldun bakarra izan ez bazara, mediku euskaldun bakarra-edo izan zara.

Beno, orain gehiago daude, baina ni hasi nintzenean, bakarra izan nintzen. Batez ere nagusiekin egiten nuen euskaraz. Eskertzen zuten, nigandik hurbilago sentitzen zirelako, edo ni eurengandik hurbilago.

Zelakoa da familiako mediku baten lanaldia?

Gaixotasun puntualekin datozenak ikusteaz gainera, gaixo kronikoei ere egiten diegu jarraipena, euren beharrianen edo euren gaixotasunerako ezarri den protokoloaren arabera. Gaixoen etxera ere joaten gara, euren abisuari erantzuna ematera, edo etxetik atera ezin direnak zelan dauden ikustera. Dena dela, eta lehen esan dudan moduan, ezinbestekoa da medikuok pazienteak bere osotasunean hartzea, eta gaixotasuna pertsona bakoitzarengana aztertzea, osasun-arazoak hainbat kausatik etorri daitezkeelako. Horrela, hiru alderdi hartu behar dira kontuan, tratamendua ipintzeko: pazientearen izaera, bere ingurua eta bere gaixotasuna. Bestetik, gizarte-langileekin ere bagaude harremanetan, beharrezkoa izanez

gero, egoera bakoitzari dagokion protokoloa martxan ipini eta pazienteari laguntzeko.

Eta zertan datza Txorierriko unitatearen buruaren lana?

Larrabetzukoa izan ezik, Barrualde-Galdakao ESln (Erakunde Sanitario Integratua) barruan dagoena, Txorierriko beste bost osasun zentroak Uribe ESln barruan daude. Unitateko buruak zentro horiek ondo funtzionatzeko ardura du. Esate baterako, langileen ordutegia zehaztu, pazienteei egin beharreko probak antolatu, kanpotik datozen osasun kanpainak osasun zentroetan modu egokian egiten direla ikuskatu, gure osasun zentroetatik ere ekintzak bultzatu, lankideen artean giro ona sortu, pazienteen kexei erantzuna edo konponbidea eman... Aipatu beharra dago Txorierriko unitatea ikastetxea ere badela orain dela 15 urtetik hona. Gaur egun BAME (barneko mediku egoiliarra) egiten dabiltzan mediku bi daude, bata Sondikan eta bestea Derion.

Erantzukizun handiko lanak dira biak. Pozik ibili zara?

Oso pozik. Batean zein bestean, arazoak ere egon diren arren.

Pasadizo xelebreak edukiko dituzu.



Batzuk bai. Behin paziente bat etorri zen larrialdi bat zuela esanez. Kontsultara sartu eta laguntza eskatu zidan, telebista-ko saio batean emandako igarkizun bati irtenbidea aurkitzeko. Eta hor ibili nintzen, gizajoari laguntzen.

Pazientzia handia, zurea.

Ez. Badakizu zer gertatzen den, batzuek ez dutela ez lagunik, ez seniderik, eta oso bakarrik sentitzen direla. Gainera, lehen apaizarengana joateko ohitura zegoen, arazoak kontatzera eta penak arintzera, baina gaur egun apaizak ez daude egun osoan elizan edo konfesatokian. Ondorioz, guregana etortzen dira "eliztarrak". Bai, medikuak izateaz gainera, apaizarena ere egiten dugu batzuetan (kar, kar).

Beste anekdotaren bat?

Beste behin, paziente bat oso kezkatuta sartu zen kontsultara, egun batetik bestera hankan orban bat atera zitzaiolako. Trapu bat ur apur batekin busti eta garbitu nion orban hori (kar, kar).

Diote oso txarto erabiltzen dugula osasun-sistema publikoa.

Beno, egia da batzuk inportantzia gutxiko gauzetarako ere etortzen direla medikuarenera. Eta, alderantziz, medikua-



*“Pazienteak beren
osotasunean
tratatu
behar dira”*

*“Familiako medikua
hur izatea
da gauzarik
inportanteenetakoa”*

*“Medikuak izateaz
gainera, apaizarena
ere egiten
dugu batzuetan”*

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



VIII. Tostada-lehiaketa



Otsailaren 8an, eguna
Derioko Kultur-Birikan
Izena-ematea: 10:00etan eta 18:30ean

Aurretik, **BERBALDIA:**
*Neguko zikloaren ohiturak, Euskal Herriko
inauteriak eta Bizkaiko aratusteak*

AKAITZE KAMIRUAGA
Labayru Institutuko Etnografia saila

ERDU ETA OSPATU GEUGAZI!



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierri.eu

renera etortzea kostatzen zaienak ere badaude. Bestetik, herriak ere antzema-ten dira joerak. Ez dut izenik aipatuko, badaezpada, baina txorierritar batzuk beste batzuk baino sarriago joaten dira medikuarenera. Dena dela, Txorierrin, mediku berberak izan gara aspalditik, eta horrek normaltasuna eta lasaitasuna ematen die pazienteei. Norbere medikuarekin harreman ona edukiz gero, berarengan konfiantza ere edukitzen dugu, eta bere aholkuari jarraitzen diogu. Nik uste dut horrela izan dela nire pa- zienteen eta neure artean.

Zelango osasun-sistema topatu zuen hasi zinenen? Zelango osasun-sistema utzi duzu?

Erabat ezberdina. 1989an lau erizain, pediatria bat eta neu etorri ginen Sondikara, zazpi orduko kontratuarekin. Beste familiako mediku bi zeuden osasun zentroan, eta horiek ordu bi eta erdiko jardunaldia egiten zuten. Gaur egun, lau familiako medikua daude jardunaldi osoan. Lehen medikua goizetan baino ez zen egoten; eta orain, goizetan zein arra-

tsaldetan. Erizainak baino praktikanteak ziren lehen, eta batez ere txertoak ipini eta sendaketak egiten zituzten. Gaur egun, erizainek gaixo kronikoei egiten diete jarraipena, gaixo horien programak eramaten dituzte, eta medikuarekin bate- ra pazienteen eta horien familiaren zain- keta dute arduraren. Horrek guztiak beste puntu bat ematen die osasungintzari eta pertsonen laguntzari. Txorierrin mediku bat eta erizain bat daude 1.500 biztanle- ko; 1.000 umeko, pediatriaren kasuan. Zerbitzu medikua askoz hobea da orain, zalantzarik ez, eta osasunaren kalitatea ere askoz hobea. Izatez, Estatuko osasun sistema onenetakoa dugu.

Murrizketak egonda ere.

Kontuan hartu behar da ni lehen mai- lako arretaz ari naizela. Orduan, nire espe- rientziatik esan dezaket guk arazoak eduki ditugula batak, oporraldiak... bete- zeko ordeko medikuak topatzeko, bai- na gainontzeko arloetan ez dugu murriz- ketarik nabaritu. Orokorrean, murrizketak izan dira Osakidetzan, bai; hala ere, askoz handiagoak izan dira beste erkidego ba-

“Hemen mediku berberak izan gara aspalditik, eta horrek lasaitasuna ematen die pazienteei”

tzuetan, hala nola Madrilen edo Katalu- nian. Ni lasai egongo nintzateke gure osasun-sistemari dagokionez.

Zelan lagundu dizuete teknologia berriak?

Askok. Pentsa ezazu boligrafo eta paper batekin hasi ginela, eta azken urte- otan emailaz ere egiten nuela paziente batzuekin. Zentro guztiak sarean egotea ere oso onuragarria izan da medikuon- tzat, pazientearen historia osoa kontsul- tatu ahal dugulako, eta espezialistek agindutako proben emaitzak edota ipini- tako tratamenduak kontsultatu. Gainera, pazienteak gugana etortzen dira batzue- tan, proba horiek guk berriro azaltzeko edo zalantzak argitzeko. Berriro ere medi- kuaren eta pazientearen arteko konfian- tza.

Zelan mintzatzen da albiste txarrei buruz?

Oso gogorra da, eta batzuetan ez da hitz gordinik erabili behar. Berbal- dia pa- ziente bakoitzaren nortasunaren arabera bideratu behar da.

Erresposabilitate handiko lanbi- dea da zuena, zentsu guztietan.

Bai.

Hala ere, medikuntzan 40 urte aritu ostean, zelango balantzea egiten duzu?

Erabat positiboa. Ez naiz damutzen medikuntza ikasi izanaz. Are gehiago, berriro jaioko banintz, berriz izango nin- tzateke medikua.



LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen komunikatzaileak
Mantentzerako garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Ofizial amariako garbiketa
Isurketak
Zabaler hilketa

Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

luz zamudio

ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Ne-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Txorierrin etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Bertako enpresako teknikoak, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, aste-

lehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariak egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administrazioekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oinarrizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuarengatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaistea, berton ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonotara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Bizkaian, Durangon eta Bilbonbiletgiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa. 94-652 39 35 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota. Bertako enpresako teknikoak, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Herriaren memoria eraikitzen

Haritz Petralanda eta Ibon Meñika zamudioztarrek *Gernikaren egiak* ikus-entzunezkoa aurkeztu dabe urtarrilean, Larrabetzun eta Zamudion. Gernika abiapuntutzat hartuta, lana memoria historikoan sakontzeko tresna da, ikusleek hausnarketara bultzatzeko asmoa daukana.

t: Itxaso Marina / a: I.M.

IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragileak *Gernikaren egiak* liburua emon eban argitara igaz. Liburua orain dala 30 urte Gernikaren bonbardaketaren gainean egin zan mahai-inguruaren transkripzioan dago oinarrituta. Petralandak eta Meñikak, IPES alkarteko kideek, beste pauso bat emon, eta *Gernikaren egiak* ikus-entzunezkoa egin dabe. Hori herririk herri dabilz aurkeztan. Gernikatik harago, "Euskal Herriko edozein tokitan berba egin daitekeen memoria historikoaren gainean aritu gura izan dogu". Zamudioztarren esanetan, memoria landu beharra dago nondik gatozen jakiteko; halanda be, gaurko errealidadea interpretatzeko lanabesa be badala aitatu deuskue, eta biharkoa eraikitzeko tresna baliagarria. Gainera, euren eritxiz, memoria historikoa lantzea eta haren gainean mintzatzea

ez da bakarrik politikariei edo adituei jagoken gauzea; herritar guztiok dogu erantzukizuna memoria historikoa aztertzeko orduan. "Azken baten, memoria kolektiboa memoria askoren batuketea da, eta 36ko gerrearen ondorioz, ez dago egia bakar bat, egia asko baizen. Gertatzen dana da, beharbada, egia batzuei ez deusegula behar beste arretarik eskaini".

Batez be gizonak kontauko historia jaso dogu, eta emakumeak desagerrarazo dabez historiari eta memoriari. Egi leek berbea emon deusee emakumeei ikus-entzunezkoan. "Memoriaren benetako ahaztuak dira. Esate baterako, inportantea da azpimarratzea Gernika bonbardatu eben hurrengo egunak emakume aurpegia euki ebala. Izan be, gizonak frontean edo kartzelan egozan bitartean, hareek hartu eben familia aurrera ateratako ardurea eta fabrikara lan egitera joan ziran. Era berean, hareek hartu eben



gertau zanaren helarazoteko ardurea, euskerea... Gaur egun be herri mugimenduetan dagozan asko eta asko emakumezkoak dira".

Herri mugimenduak hain zuzen be bada ikus-entzunezkoan ukitzen daben beste arlo bat. "Euren lana aitortzeko beharra dogu, jakin-mina euki dabelako eta memoriaren lanketan murgildu diralako. Gainera, askotan akuilua be izan dira instituzioak gai honen inguruan lanean hasateko. Bestetik, badirudi memoria historikoaren inguruan dana dagoala esanda, baina herri mugimenduek euren lanaren bidez adierazo daben moduan, oraindiño badago gauza pilo bat egiteko. Adibide

"Euskal Herriko edozein tokitan berba egin daitekeen memoria historikoaren gainean aritu gura izan dogu"

"36ko gerrearen ondorioz, egia asko dagoz; batzuei ez deusegu behar beste arretarik eskaini, beharbada"

MARMOLGINTZA GOYO
SURALDE-GAINEKOAK OBRAS HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txarriren etxebatza, 9-4
413. bulegoa
48102 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 58
a.amondarain@telefonos.net



moduan ipini geinke Karraderan alkar-tea Larrabetzun egiten dabilen lana”.

Komunikabideak eta hareek Gernikaren bonbardaketan eduki eben pape-
ra, zein munduko edozein gatazkatan
eduki daben eta daben papera be azter-
tu dabe ikus-entzunezkoan. “Bonbarda-
ketea gertatu zenetik frankismoak gezu-
rra zabaldu eban eta mundu mailako
komunikabideek gezur horren barri
emon eben. Komunikabideek oso paper
garrantzitsua dabe iruditegi kolektibo-
an, eta gertaeren irakurketa euren inte-
resen ikuspuntutik edo boterean dago-
an interesen ikuspuntutik egiten dabe.
Adibidez, oso modu ezberdinean emon

eben Gernikako eta Durangoko bonbar-
daketen barri. Orain asko egiten da berba
egia-ostearen gainean; bada, esan geinke
Gernikan egia-osteagaz esperimentatu
ebela”.

Oroimen bizia

Zamudioztarren esanetan, Gernika
oroimen biziko herria da eta herritarrek
partaidetza aktiboa dabe oroimen histo-
rikoaren lanketan. “Hunkigarria da bene-
tan bonbardaketea gogora ekartzen da-
nean, adarraren soinu...”. Halanda be, ai-
tatu deuskue oroimen horrek presentzia
gitxi daua herriko kaleetan. “Oso bitxia
da bisitatu daitekeen bunker bakarra



Astra enpresakoa izatea, hango langileek
erabilteko zana. Herritarrek beste leku
batzuetan babestu behar izan eben, adi-
bidez, adintsuen etxeko komuneko bun-
kerrean... Oroigarriren bat be badago,
baina oso azalpen gitxi... Ikuspuntu ho-
rretatik, Gernika eraiki beharreko herria
da, eta gernikarrek ez ezik euskal herritar
guztiok dogu ardura hori. Bestetik, bada-
kigu Gernika bonbardatu egin ebela, bai-
na ez gara kontziente bonbardaketa ho-
rrek benetan zer ekarri eban: Gernikan ez
dago alde zaharrik, suntsitu ebelako,
herriaren berreraikuntzea frankismoak
egin eban, eta berreraikuntza ideologi-
koa, hizkuntzazkoa, generokoa... be izan
zan”.

Gernikaren egiak ikus-entzunezkoa
memoria historikoa lantzeko tresnea iz-
ateaz gainera, hausnarketarako eta ezta-
baidarako lanabesa be bada, etorkizuna
eraikitzeko ekarpen baliagarria izan dai-
tekeana. Jakintzea partekatzea be bada
IPES alkartaren helburua, eta horren ha-
ritik *Gernikaren egiak* liburua eta ikus-ent-
zunezkoa plazaratu dabez. Egileek egi-
tasmoagaz dabilz bueltaka eta, aurreratu
deskuen moduan, baliteke ikastetxeetan
erabilteko unitate didaktiko bat be atera-
tea.

 **ZAMUDIO**
Loteria Nazionala

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

PATXI
KOOP

FAJO KOOPERABIA ELKARTEA
Nafarroa Garaia - (Euzkadi) 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 287 - info@paxi-koop - www.paxi-koop

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

“Herri itzela da gurea, leku harrigarriak dituen”



TOTI MARTINEZ DE LEZEA | idazlea

Enda Lur ostean, Larrabetzuko idazleak literatura fantastikoari lotutako beste istorio batekin etorri zaigu: *Arbasoen Ituna*. Bere azken eleberria, mitologia eta proiektuak eduki ditugu hizpide.

“Esfortzu handia egiten da liburua hizkuntza bietan aldi berean ateratzeko. Irakurleak hori estimatzen hasi dira”

“Aspaldi honetan dramarako joera dago, nobela beltzarako... oso unagarria da, nire ustetan”

t: Itxaso Marina Ondarroat

Eleberria azaroan aurkeztu zenuen. Zelako harrera eduki du?

Harrigarria, euskaraz zein gaztelerez. Enda eleberriak nahiko harrera hotza eduki zuen, beharbada, landu ohi dudan generoa alde batera utzi eta genero fantastikoari ekin niolako bertan. Baina burugorria naiz, eta *Arbasoen Ituna* da nik kontatu nahi nuen istorioa.

Durangoko Azoka saio erabakigarria izan zen. Betiko moduan, ilara luzeak egon ziren zure stand aurrean.

Eta aho zabalik nago, euskarazko itzulpena gehiago saldu delako. Ezin dut euskaraz idatzi, eta argitaletxeak nire eleberriak euskaraz eta gaztelaniaz ateratzen ditu aldi berean, hori konpentsatzeko. Esfortzu handia egiten da ekonomiko-ki zein pertsonalki, eta ederra da irakurleak esfortzu hori estimatzen hastea. Behin, gizon batek esan zidan irakurriko zuela nire lana, euskaraz idazten nuenean. Nik esan nion oso pozik nengoela, orduan, Dostoyevskiren lana errusieraz irakurritu zuen pertsona bat ezagutzeaz. Eta bakarrik euskaraz idatzi dena irakurtzen bazuen, oso gauza gutxi edukiko zituela irakurritu. Izan ere, itzuli ezin daitekeen hizkuntza bat hizkuntza hila da. Euskarara

errusieratik, ingelesetik... itzultzen bada, zergatik ez gaztelaniatik? Gainera, kontutan hartuta nik gaztelaniaz idatzi arren pentsamolde euskalduna dudala.

Gazteen gustukoa ez ezik nagusien gustukoa ere izan da. Harrituta?

Bai. Laurogei urte baino gehiago zituenean emakumea hurbildu zitzaidan liburua sinatu niezaion, eta esan nion, *beno, badakizu hau dela... Bai, ederto dakit zer den, Endaren eleberriaren jarraipena*, erantzun zidan berak. Bestetik, 12-14 urteko gaztetxoek mezuak ere jasotzen ditut eta *Enda* jo eta ke irakurtzen dabilta. Aspaldi honetan, literaturan zein telebistan, dramarako joera dago, nobela beltza, hilketak... eta, benetan, oso unagarria da; nire ustetan, behintzat. Horregatik idazten dut eleberri historikoa, *Nurren* ipuinak, *Enda* eta *Arbasoen Ituna*... eta primeran pasatzen dut.

Fikzioan 40 urte pasatu dira –hiru urte, errealtatean–, Enda eleberritik Arbasoen ituna eleberrira. Berrir ere, mitologiak, tribuen arteko gatazkaz... betetako istorioa ekarri diguzu.

Euskal mitologia oso anitza da, baina ez dugu komuneko imajinariorik, bakoitzak bere aldetik doalako. Gainera, ahoz aho jaso ditugun elezaharrak dira, urardotuta eta kristaututa. Eta kontuan hartu

behar dugu mitologia ez dela umeentzako ipuinak, baizik eta mitologia guztiak antzina erlijioak izan direla. Bestetik, badakigu VI. eta VII. mendeetan frankoek iparraldetik egiten zutela erasoak, eta godoak, hegoaldetik. Eta erdian, geu ginela. Baina oso gutxi jaso da guri buruz. *Enda* eleberriarekin hasi nintzenean, ikuspuntu bat eman nahi nuen idatzita ez dagoen historiari buruz, eta jendeak sinesten zuen mitologia, erlijioa, sinesmenak... berreskuratu. Horrela, dugu mitologia anitza eta jasota dagoen istorio eskasa batu eta Euskal Herria VI. eta VII. mendeetan zelan izango zen imajinatu nuen. Hori da *Enda*, *Arbasoen Ituna* eta etorriko diren ideak.

Izan ere, Euskal Herrian zazpi mendi sakratu daude eta zuk zazpi eleberri fantastiko idazteko asmoa duzu...

Ikusiko dugu, eleberri horiek urte bi ateratzen badituzte hamar urte pasatuko direlako, eta neuk ia 80 urte edukiko ditudalako... Ez dakit zelan egongo naizen ni adina horrekin! Dakidana da hirugarren eta laugarren bat aterako ditudala, gero gerokoak!

Idazten primeran pasatzen duzu beti, baina Arbasoen ituna idazten, ezin hobeto. Zergatik itxaron urte bi hurrengo argitaratzeko?



Niretzat higienikoa delako. Ipurtarina naiz eta aldi berean gauza ezberdinetan ibili behar naiz sartuta. Aurten, beste istorio bat plazaratuko dut *Isilpean gordea* liburuaren ildoari lotuta. Beti dira gai berberak 36ko gerra zibilari buruz: bandoak, gudak, politikariak... baina ez da gure aitita-amamei buruz, gure gurasoei buruz, hitz egiten, zeinei bizitza gauetik goizera aldatu baitzitzairen. Izatez, *Isilpean gordea* eleberraren meritua izan zen polizia, militarrek... ez direla ezta behin ere aipatzen. Bide horretatik jarraitzeko asmoa dut, kontatzeko istorio asko daukelako. Sekulako istorioak. Gainera, *Nur* bildumaren 14. alea ere atera behar

dugu. Kaxoi bat daukat umeek idatzitako gutunez beteta...

Oso harreman estua duzu irakurleekin.

Ezinbestekotzat jotzen dut. Egongo da inor nahiago duena kristalezko dorre batean bakartu eta bertan bere bikaintasunak idatzi, baina hori ez dator bat nirekin. Niri jendearekin egotea gustatzen zait, hitz egitea eta pertsonaiaren bati buruz eztabaidatzea ere bai. Oraindik jasan behar dut baten bat galdetuz zergaitik hil nuen Kattalin *La herbolera* liburuan...

Nur eta herensugearen tenplua filma Goya sarietara proposatu dute

"Aurten, beste istorio bat plazaratuko dut Isilpean gordea liburuaren ildoari lotuta"

"Ezinbestekotzat jotzen dut irakurleekin harreman estua edukitzea"

-zorionak zuri dagokizunagatik-, eta proiektu batzuk daude zure lanei lotuta. Adibidez, audiolibro bat grabatuko duzu Amazonerako.

Amazonekoek hiru eleberrien eskubi-deak erosi dituzte: *El verdugo de Dios*, *El jardín de la oca* eta *Isilpean gordea*. Hirurei ahotsa ipintzeko esan zidaten, baina lehenengo bietan protagonistak gizonezkoak dira eta ezetz esan nuen. *Isilpean gordea* eleberraren protagonista, berriz, emakumezkoa da eta bere istorioari ipiniko diot ahotsa. Pozik baino pozago nago. Gainera, izugarri gustatzen zait antzerkia, beraz...

Bestetik, Txinako editorial batek Nur guztien eskubideak erosi ditu, talde independente batek zinemara eraman nahi du La herbolera, eta Arte Ederretako ikasleek Enda Lur aukeratu dute karrera amaierako proiektutzat.

Ettxera etorri ziren azken horiek, liburuak oso erabilia zituztela. Euren asmoa telesail bat egitea da eta proiektu bat baino ez den arren, oso pozgarria da, lehen aipatu dudana imajinario propio hori sortzen gabiltzalako. Literatura fantastikoa lantzen duten bertoko idazleen lana irakurri dut, eta beti dago pertsonaiak eta istorioa urrutiko herri batean kokatzeko joera. Eta egia esan, gurea herri itzela da, leku harrigarriak dituen. *Enda Lur* eleberrian Ori mendira joan nintzen; Txindokira eta Aralar mendira, oraingo honetan... Eta hurrengoan, batek daki... Gorbeia, Anbotora... edo Aizkorri.

Emakume izeneko artelana

LOURDES PUERTAS GÓMEZ | artista

Otsailaren 23ra arte, "Nos_otros" erakusketea bisitatzeko aukerea egongo da Derioko Kultur Birikan. Lourdes Puertas Gómez erakusketearen egilea da, eta bertan ikusgai ipini dauz hainbat eta hainbat emakume, euren izenak eskuz idatziz.

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

"Emakumeok ikusezin egin gaitue historian zehar. Proiektu honen bidez, gai horri heldu eta emakumeok ikusarazoz gura izan dot", azaldu deusku derioztarrak. "Alde batetik, emakumeok egunero egiten dogun lana ez da inoiz aintzat hartu, hau da, ez dira inoiz aitortu garbitu diran maindireak, sendatu diran zauriak, prestatu diran otorduak... eta lan hori guzti barik ez gintzatekez egongo gaur egun gogozan lekuan. Eta bestetik, sinestara deuskue, etxeko arloa kenduta, emakumeok ez dogula bizitzaren beste arlo batzuetan parte hartu, baina agiriak kontrakoa esaten deuskue: emakumeok historian zehar gure negozioak eduki doguz, mailegu-emaileak izan gara, ikertzaileak, medikuak...".

"Emakumeok ikusezin egin gaitue historian zehar, eta proiektu honen bidez ikusarazoz gura izan dodaz"

Emakume horreek guztiak ikusgai egiteko, Lourdesek hainbat emakumeren izenak batu eta memoria kolektibora ekarri dauz. "Nire lagunei-eta eskatu neutsen euren familiako emakumeen izenak idazteko, eta gizarte sareen bidez ere zabaldu neban proiektua. Izenak antxinako paper pintatu-bilkarietan berridatzi dodaz. Idea da etxeko hormak, emakumeok egon garen gunen intimo hori, birsortzea, bertan



euren izenak idatzi eta merezi daben garrantzia emotea, eta hormetan ipini ezin diran titulu horreek guztiak gogora ekartea, idatzi ezin diran liburuak edo apalategietan ipini ez diranak, koadroak...". Lourdesek emakumeen izena eta abizen biak idatzi dauz, eta hasieran izen guztiak zenbatzen ahalegindu bazan be, proiektuak hain tamaina handia hartu dau, ezen ezin dauan zehaztu zenbat emakume



"Izenak bata bestearen jarraian idatzi dodaz, emakume guztion lanaren indarra islatzeko"

izen idatzi dauan. "Zortzi paper pintatu-bilkari dira, eta bertan emakumeen izenak bata bestearen jarraian idatzi dodaz, letra xehez eta puntua erabili barik. Horrela ahalegindu naz islatzen emakume batek egunero egiten dauan lan errepikakorrek -oheak, garbi-ikuzia, harrikoa, otordua...- eta emakume guztionak alkarre-gaz daben indarra eta batasuna". Paper pintatu-bilkariez gainera, artistak arroz-paperean be idatzi dauz izenak eta erretxi-nazko ale batzuetan sartu dauz. "Emoten dau izenak flotatzen dagozala. Likido amniotikoa imitatzeke modu bat da. Aleak zoruagaz mimetizatzen dira eta ozta-ozta ikusi daitezke. Emakumeok menderik mende egon garen ikusezintasun egoera horren alegoria da". Emakume derioztarren izenez gainera, Estatuko beste herrietako emakumeen izenak be agertzen dira erakusketan, hala nola Galiziakoak eta Andaluziakoak. Era berean, Mexikoko emakumeen izenak irakurri daitezke paperetan. Baita ospetsuak izan diran emakume idazle, artista... batzuen izenak be.

Gradu-amaierarako proiektua

Izenakaz batera, lora batzuen koadroak be badagoz ikusgai "Nos_otros" erakusketan. "Aurretik euki dodazan emakumeak hartu dodaz erreferentziatzat, amak eta emazteak izateko hezi dabezanak eta bizitzeta besteak zaintzen emon dabenak. Oso momentu gitxi eben euren interesak edo zaletasunak garatzeko, eta nik batez be loren inguruan gogoratzen dodaz. Aldaxkak trukutzen, landareen gainean berba egiten... Horregaitik margotu dodaz geranioak, etxeko landarea dana, eta oso apala. Izan be, proiektua benetan horretan oinarritzen da: zuen izenak idazten dodaz eta zuen lorak margoten dodaz". Koadroen ondoan hareen abstrakzioa be ikusi daiteke. "Tindagai bat atera neban lore-hostoe-tatik, eta handik moldagarria zan ore bat atera neban. Geranioen koadroak mate-

riazko modu batean birsortu egin neban orduan".

Erakusketatik kanpo, derioztarrak hiru emakumeen erretratuak eta grabatu batzuk be eroan dauz Kultur Birikako hormetara. Gainera, bere bizitzaren emakume-ei entzundako berbak, gaur egun erabiltzen ez diranak, batu eta bere burua grabatu dau berba horreek tablet-ean idazten ebazan bitartean. Erakusketa aretoan ipini dan telebista-monitore batek erreproduzitzen dauz irudiak.

Lourdes adingabekoen hezitzailea da eta Bizkaiko Foru Aldundiaren menpe

dagoan zentro baten egiten dau lan. Betidanik euki dau gustuko margotutea eta orain dala urte batzuk Arte Ederrak ikastera animau zan. "Nos_otros" erakusketea bere gradu-amaierako proiektua da. Erakusketea Euskal Herriko Unibertsitateak Abandoibarran dauan Bizkaia Aretoan be egon da, eta Barakaldoko Clara Campoamor kultura etxera eroango dau martxoan. Aurreratu deuskuen moduan, etorkizunari begira baliteke emakumeen izenen proiektua barriro hartzea eta horri beste modu baten hel-tzea.



ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK



Egindako lanaren etekina ikusi eta harro sentitzen da bat.

Narra Calvo Fernandez
Gasteiz. Ingeniaritza Biomedikoa, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA ORONA IDEO • URTARRILAK 27 LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia GOIERRI • OTSAILAK 1 OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia ARRASATE • OTSAILAK 3 LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia	HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA ESKORATZA • OTSAILAK 17 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia ARETXABAETA • OTSAILAK 17 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia
ENPRESAGINTZA FAKULTATEA BIDASOA • URTARRILAK 27 LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia OÑATI • OTSAILAK 1 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia BILBAO • OTSAILAK 8 OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia	GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center DONOSTIA • OTSAILAK 15 OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium



902 110 436
www.mondragon.edu/prest



a: Joseba Apeztexea

Orratzez lotutako antzerki-txatalak

CON ALFILERES ZAMUDIOKO ANTZERKI TALDEA

Izar berriak ditugu Txorierrin, Zamudion hain zuzen ere. Eta euren gaitasuna San Martin jaietan taularatu zuten jendaurrean, *El rey Tiburcio busca novia* sainetea antzeztu zuten-eta. Hala ere, hori ez da lehenengo aldia izan ikuskizuna eskaini dutena, Arimen Gauean Zugarramurdiko sorginei egindako epaiketa jokatu zutelako. Ana Gorostitzaga aktoreetarikoa bat da, eta bere eskutik ezagutu dugu zer dagoen agertokiaren atzealdean.

t: Itxaso Marina

Con alfileres antzerki taldea oso talde gaztea da, orain dela urte bi sortu zena eta sei aktore afizionatuk osatzen dutena, hiru emakumezkoak eta hiru gizonezkoak. "Ahizpak eta biok taberna bat genuen eta urtero jai bat antolatzen genuen, tabernaren urteurrena ospatzeko. Urte batean David Manteca, taldeko zuzendaria, azaldu zen eta komentatu zigun aktorea zela, eta zergatik ez genuen urteurrenerako antzezlana bat egiten. Animatu ginen eta arrakastatsua baino arrakastatsuagoa izan zen", azaldu digu Anak.

Publikoari hainbeste gustatu zitzaion ikuskizun hori, eta aktoreek hain ondo pasatu zuten, ezen aurtengo urteurrenerako beste antzezlana bat egitea erabaki baitzuten. Entseguak tabernan bertan

egiten zituzten. Arrazoi pertsonalengatik taberna utzi behar izan dute aurtten, baina eragozpen horrek ez die antzezteko gogoia kendu. "Antzezlana udan eskaini genuen azkenean, kalean bertan. Eszena-tokia kamioi batean atondu genuen... Taldeari horregatik ipini diogu Con alfileres izena, dena egiten dugulako baliabide gutxiarekin eta ahal den moduan". Baliabide gutxiarekin ikuskizuna izan arren, horrek ere herritarren oniritzia eduki zuen eta akuilua izan zen taldekideek udalari entseguak egiteko aretoa eskatzeko. "Kultura Etxeko areto nagusia utzi digute eta primeran gaude han. Bestetik, arropa eta atrezzoak ere geuk egiten dugu eta dagoeneko baditugu tramankulu batzuk. Leku egokia behar da horiek gordetzeko eta esan digute, behar izanez gero, udal biltegi batean utzi ahalko ditugula".

Arestian esan bezala, taldean sei aktore daude; hala ere, ikuskizunaren konplexutasunaren ondorioz jende gehiago behar dutenean, lagunak-eta nahasten dituzte proiektuan. "Zugarramurdiko sorginei egindako epaiketa antzezteko, esate baterako, aktore gehiago behar genituen eta, egia esan, oso ondo erantzun zuten guztiek. Polito atera zitzaigun antzezlana, eszenaratzea ederto egon zen, baina soinuak huts egin zuen eta horrek lausotu zuen emanaldia. Pena izan zen, entseguei gogor eta gogoz ekin genielako... Haserre handia harrapatu nuen".

Ausardia

Taldeari Jose Cedenaren umorezko saineteak antzezteak gustatzen zaio. "Saineteak hartu eta apur bat moldatzen ditugu, gurera egokitzen. Euskarazko

*"Eszenaratzea itzela da.
Nerbioak dantzan
dituzu eta ez dakizu
agertokira atera nahi
duzun ala ez"*

*"Betetzen zaituen artea
da, berarekin batera
ekartzen dizkizun
gauzengatik: jendea
ezagutu, istorioak..."*

hitzak sartzen ditugu, adibidez". Moldaketak Anak berak egiten ditu. "Eszenaratzea itzela da. Nerbioak dantzan dituzu eta ez dakizu agertokira atera nahi duzun ala ez, ondo egingo duzun, ikasitakoa gogoratuko duzun... Oso gai serioa da eta oso ausarta izan behar da, eszenatokira igotzeko... Baina poz-pozik gaude". Batez ere publikoak ondo erantzuten duenean. "Antzezlanak kamioian egin genuenean ez ziguten uzten ezta handik jaisten ere. Musuak eta besarkadak jasotzen genituen alde guztietatik. Jaietako ikuskizuna ere oso arrakastatsua izan zen, herritarrek zorionak eman zizkiguten ondorengo egunetan. Eta batzuek sorpresa hartu zuten eszenatokira gainean ikusi gintuztenean. Sorpresa atsegina".

Gainera, ikusleen artean zegoen neska batek Mungian antzezteko proposamena egin zien. "Neska horrek nagusien erresidentzia batean egiten du lan eta ekintza ludikoak antolatzeke ardura du. Baietz erantzun genion, pozarren. Guk ez dugu dirurik jasotzen emanaldiengatik; zaletasunengatik egiten dugu, antzeztu baino ez dugu egin nahi". Izan ere, Ana-



a: Mari Carmen Noya

ren esanetan, gustatzen bazaizu, antzerkiak kezka alde batera uzten laguntzen dizu, ondo pasatzen, arreta beste gauza batzuetan ipintzen... "Nahastan eta betetzen zaituen artea da, berarekin batera ekartzen dizkizun gauzengatik: jendea ezagutu, istorioak... Egutero ikasten duzu, asko. Nik ederto pasatzen dut, barre piloa egiten dut eta aldaketa itzela ekarri dit. Ez nekien ezer antzerkigintzari buruz eta txundituta nauka".

Antzerki taldean nahi duenak har dezake parte: umeek, gazteek zein helduek eta nagusiek. Entseguak Kultura Etxean egiten dituzte, martitzenetan eta eguaztenetan arratsaldeko 7etatik aurrera, eta zapatuetan, goizeko 10etatik aurrera. "Gure asmoa da herriko jaietan ikuskizun bat egitea, maiatzean eta azaroan". Badakizue, ikusleok, Con alfileres antzerki taldekoek atsegin handiz ikusiko zaituztete hurrengo emanaldian.

elekma
URRATZUREN BAT DUTEN ITXITURAKNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKAK

leherengo markak • Prezioak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasariari erabiltzeko, 25-3 N • 48180 Iruia
T: 944 530 232
www.elekma.es

R P A
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Lizarola plaza, 5
48170 Zamudio
94 453 14 49



Eta berbalagunok ilusioz ekin diogu ikasturte berriari. Horrela, euskaraz airtzeko elkartzeaz gainera, bestelako ekin-tzak ere egin ditugu: ardo dastatzea, Baserri Antzokian; bisita gidatuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Jauregira, Getxo Photo egitasmora eta Arte Ederretako museora; ermitaz ermita ibilaldia; eta maskarak, gurasolagunekin.

Datozen hilabeteotan ere edukiko ditugu zenbait ekintza. Esate baterako, otsailaren 3an Abadiñora joango gara, San Blaseko azokara, eta otsailaren 22an Goya margolariaren artelanez gozatzeko aukera edukiko dugu, Bilboko Arte Ederretan egingo dugun bisita gidatu bati esker. Txepetxa AEK euskaltegikoekin Launa upeltegira, Guardiara, joango gara martxoaren 3an. Ardo dastatzea ez ezik bazkaria ere edukiko dugu han.

Bestalde, eta gurasolagunei zuzenduta, herensuge txinatarra egiteko tailerra antolatu dugu Derioko eskolan, astelehenetan eta eguaztenetan, 16:00etatik 17:00etara. Herensugea oso ezaguna da munduko kultura guztietan, eta tailerrak helburu bikoitza du: alde batetik, guraso eta seme-alabak pertsonaia horrengana hurbiltzea; eta bestetik, parte-hartzaileen interesa piztu eta eskulanetan murgil-





**berba
Lagun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
635 75 35 95
E-mail:
txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
 TOTOAN TEEF
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

tzea. Izan ere, umek jolasa eta artea dituzte komunikatzeko modutzat, eta biak uztartuta harremanak sortzen dira. Koloreak, irudimena eta bolumenak elkarrekin landuz, hizkuntzara hurbiltzera gara eta hori garatzen dugu. Era berean, gurasoen eta seme-alaben arteko harremana, irudimena eta teknika landuko dira. Euskaraz eta elkarrekin, zerbait polita diseinatuko dugu eta emaitza kalera aterako dugu, besteok ere horrekin disfrutatzeko aukera izan dezaten.

Gurasolagun programa Txorierriko Mankomunitateak, TOTOAN euskara elkarteen federazioaren laguntzarekin, antolatzen duen doako programa da, eta gurasoen eta seme-alaben artean euskaraz egitea bultzatzea du helburu.



sarreraren salmenta

www.bbkk.es

bbk



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO: TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak izan daitezke

ZINEA	SOLA EN CASA
 BAJEDIO AG 89' (2D) Otsailak 4, 17:00	QUE BAJE DIOS Y LO VEA EG-7 95' (2D) Otsailak 4, 19:30
 LA PANDA DE LA SELVA AG 97' (2D) Otsailak 11, 17:00	THI MAI, RUMBO A VIETNAM AG 90' (2D) Otsailak 11, 19:30
 MAZINGER Z EG-7 95' (2D) Otsailak 18, 17:00	LOS ARCHIVOS DEL PENTAGONO EG-7 116' (2D) Otsailak 18, 19:30
 EL PASAJERO EG-12 105' (2D) Otsailak 25, 19:30	SALVANDO AL REINO DE OZ AG 82' (2D) Otsailak 25, 17:00





ETA OTSAILEAN...
SIN RODEOS
HAPPY FAMILY



Konekta zaitez gurekin!




 **Facebook:**
aikoraldizkaria

 **Twitter:**
@Aikortxorierrri

 **Instagram:**
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali

 **WhatsApp:**
688 86 41 35

 **E-posta:**
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

XXI. mendeak 18 urte

Euskaltzaindiak 100 urte

t: Juan Luis Goikoetxea / a: admsys.cl

2018an 18 urte betetzen ditu XXI. mendeak. Adin nagusitasunera heldu da. Neska-mutil gazteak ere, 18rekin sartzen dira unibertsitatera, gizarte digitalizaturako prestaketa lortzen.

Alfontso Irigoien euskaltzainak errepikatu ohi zuen, Napoleonen heriotza eguna ikastea baino axola handiagokoa dela "neu jaio naizen eguna", alegia, joan-kizuna baino etorkizuna dela garrantzitsuago.

Etorkizunari begira, ondo dakit ez naizena gazteria digitalaren belaunaldikoa; nik kanpotik egiten diet so begietara, periferiatik –periferia grekotik hartu dugun berba euskalduna da–.

Basil Bernsteinek (2000) deskribatu zuenez, nik identitate retrospektiboa jaso nuen ikasketetan, Atenas-Erroma-Jerusalem-ekoa, eta gaur identitate pedagogiko prospektiboak behar dituzte 18 urtekoek. Niretzat 2018an erraz-erraza da atzeraka aritu eta 1918ra bihurtzea, ze aurten 100 urte beteko ditu Euskaltzain-

diak. Edo 1818raino joatea ze, urte hartan idatzi zituen Bizenta Mogelek –gure lehen emakume idazleak– "Gabon kantak" Bilboko elizetan urterik urte abestu ohi zirenak. Edo, gura baduzue, berez-berez itzul naiteke 1718ra Sarako Etxeberri medikuak "Lau-Urduri Gomendiozko karta" argitaratu zuen urtera, zeren egilea bizi zela inprimatutako idazlan bakarra izan baitzen, hartan ere, Baionan.

Edonola ere, gerora bidean, teknologia berriak pedagogia moldatuz doaz pitike-pitike eta, zoritxarrez, guraso nahiz irakasleek nekez lagun dezakete gazteen heziketan, estatuak baino haragotik datorren unibertso digitala oraindik curriculum ezkutua delako.

Adibideak adibide, dakidana da, ama zena bazkalorduan deseroso sentitzen zela mahikideok isilik geratzen ginenean. Uda honetan, ostera, beroaz egosita tabernaratu ginenetariko baten, bikote bik mugikorra eskuan dela, ia ordu betez iraun zuten mutu. XXI. mendeko gazteak beharko du prospektiba zuhurtasunez landu.



ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Lzpilen
PARAFARMACIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

t i k t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Etxeko sukaldaritza

Txarri-solomo errea,
orejoia-saltseagaz

t: M. Lekerika / a: misrecetascaseras.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 600 gramoko txarri-solomo zati bat
- 100 g orejoi (30 minutuan eukiko dogu ur berotan)
- 150 ml sukaldatzeko esnegain
- 100 ml ardao zuri
- 200 ml okela-salda
- Koñak-zurrusta bat
- Piperbeltza eta gatza
- Orioa

Prestetako erea:

Solomoari gatza eta piperbeltza bota eta orio-zurrusta baten frijiduko

dogu, gorritzen dan arte. Koñak apur bat bota eta sua emongo deusagu, alkohola erre arte. Laba beroan, 180 graduan, sartuko dogu eta han ordu laurden baten eukiko dugu. Labatik atera eta xerratan ebakiko dogu.

Bestetik, saltsea egiteko, okelak utzi-tako ura aprobetxatuko dogu. Horri ardao zuria botako deusagu. Irakiten hasten danean, orejoiak (sikatuta), okela-saldea eta esnegaina gehituko doguz. Su txikian bost-zazpi minutu inguru eukiko dogu egozten. Saldea irabiatu eta beharrezkoa bada, gatza botako dogu. Solomoak saltsak lagunduta aterako dogu mahaira.

Sopa
garbigarria

a: www.confiesoqucocino.com

Osagaiak (4 lagunentzat):

- Kipula bi
- Apio bi
- Porru bi
- Martorri apur bat
- Kinoa
- Orioa
- Gatza
- Piperbeltza

Prestetako erea:

Barazkiak garbitu eta dadotan zatituko doguz. Lapiko batean ura ipini eta hori irakiten hasten danean, barazkiak botako doguz. Su txikian eukiko dugu, ordu bian inguru. Saldari orio apur bat, gatza eta piperbeltza botako deusaguz. Quinoa ur hotzean garbituko dogu eta saldeari botako deusagu. Irakiten 15 minutu inguru izango dogu.



Golitioltza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializatea:
Xafila-lanak
Zoruak

944522910 - 865703312 - 652772016

hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBARTARITZA

Nerea Pedrosa Gely, 517
COOP. SARADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi biren artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: www.pasatiemposinfantiles.es



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Elurra ikusi dut* (Elkar), Xabier Lete Bergaretxe.

–*Labur txintan* (Pamiela), Juan Kruz Igerabide.

–*Berriak jaio ginen*, (Lanku Bertso Zerbitzuak) Jon Maia.

–*Elkarrekin esnatzeko ordua* (Susa), Kirmen Uribe.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

–*Gatza* (Txalaparta), Irati Jimenez.

–*Erraldoiak* (Elkar), Xabier Olaso Bengoa / Enrique Morente Luque (Il.).

–*Bainera Bete Itsaso* (Elkar), Miren Amuriza Plaza / Irati Eguren Arruti (Il.).

–*100 kontu ondo ezagutzeko giza gorputza* (Ttarttalo), Alex Frith / Federico Mariani.

MUSIKA

–*Maitte-maitte* (Elkar), Batzuk.

Sudokua

		5			6			4
9		4		7	8		5	
	5	7		8				
4			3			2		
		6	9		2		4	
					9	6		2
								7
	6						8	9

6	8	5	1	5	8	9	7	6
1	2	9	8	5	4	3	7	5
5	4	8	7	3	9	6	1	2
8	3	6	9	1	2	7	4	5
4	9	1	3	5	7	2	6	8
2	5	7	6	8	4	1	9	3
9	1	4	2	7	8	3	5	6
6	8	2	5	4	3	9	7	1
3	7	5	1	9	6	8	2	4

TABERNA GAZTEDEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

LEJARRENE JATETXEA
Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 55 46

GOXO-GOXO LOHITZUN

Astresolden zabalik
Ogle egutero
Pastelak entregaz

Garaioltza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

Erakusketak

Sondika

- > "Nunca es el destino", Josu Fernándezen argazkiak. Otsailaren 1etik 28ra, liburutegian.

Derio

- > Lourdes Puertas Gómezen "Nos_otros", otsailaren 23ra arte, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > "Mujeres en los márgenes" koadro erakusketa. Otsailaren 1etik 16ra, Anguleri kultur etxean.

Hitzaldiak

Sondika

- > Interneten modu seguru batean ordaintzea. Izena ematea: otsailaren 26tik martxoaren 9ra, liburutegian. Ikastaroa: martxoaren 21ean, 18:00etan, KZgunean.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: *Gu orduko hauek*. Otsailaren 15ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Sondika

- > Interneten modu seguru batean erostea. Izena ematea: otsailaren 12tik 23ra, liburutegian. Ikastaroa: martxoaren 7tik 14ra.

Derio

- > Emakumeentzako mindfulness. Izena ematea, otsailaren 15era arte Kultur Birikan. Ikastaroa: otsailaren 20an eta 27an; eta martxoaren 6an, 13an eta 20an.

Zamudio

- > Zen meditazioa, eskolako areto nagusia. Otsailaren 2an, 20:00etan; otsailaren 3an, 11:00etan; otsailaren 4an, 11:00etan; otsailaren 15ean; 19:00etan.



Irteerak

Sondika

- > Erlo mendia. Otsailaren 11n, 09:00etan, eskolako aparkalekuan. Izena ematea, liburutegian.

Zamudio

- > Sasimartxo, Arroeta mendi taldearen eskutik. Otsailaren 4an, 09:00etan (ibilbide luzea) eta 10:30ean (ibilbide laburra), Sabino Arana plazan.
- > Coll Asón-Pto Lunada. Otsailaren 11n, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Lezama

- > Lunada (elurretara). Otsailaren 18an, 9:30ean, eskolan. Izena aldez aurretik eman behar da. Gailur mendi taldeak antolatua.

Lehiaketak

Larrabetzu

- > Txorierriko 20. Ipuin Lehiaketako sariak banatzea, frontoian. Otsailaren 23an, 19:00etan.

Musika

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: María Rivero eta tribu banda. Otsailaren 18an, 18:30ean.

Ospakizunak

Derio

- > Santa Ageda, Ipar Alde abesbatzaren eskutik. Otsailaren 3an.

Lezama

- > Santa Ageda, Ekidazu abesbatzaren eskutik. Otsailaren 4an, arratsaldean, taberna eta kaleetatik.

Zamudio

- > Santa Ageda, 2000an jaiotako neska-mutilen eskutik. Otsailaren 4an.

Bestelakoak

Derio

- > Pintxo-pote, Goiko aldean. Otsailaren 17an.
- > Pintxo-pote, Trikiliku taldeak girotua, Beheko aldean. Otsailaren 24an, 19:00etatik 22:00etara.

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

BOLALEKU
JATETXEA

Granditza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Joraburu
Facebooken

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

LEZAMAKO BATZOKIAK

Garaioltza 120 B
946561719
batzokilezama@gmail.com

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko duzu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetzuko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 558 172

Faxa: 944 558 172



Zamudioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 520 826

Faxa: 944 521 349



"Txorierri" B.H.I. (Derio)

Tel.: 944 543 258

Faxa: 944 543 262



"Gorondagane"

Herri Ikastetxea (Sondika)

Tel.: 944 531 020

Faxa: 944 531 020



Derioko Herri Ikastetxea

Tel.: 944 541 246

Faxa: 944 541 246



Lezamako Herri Ikastetxea

Tel.: 944 55 119

Faxa: 944 555 163